

- 1. Gelatik irtetzerakoan argia itzaliko dugu. Egunaren bukaeran ordenagailuak, proiektoreak....itzalita daudela ziurtatuko dugu.*
- 2. Gelako materiala arduraz erabiliko dugu: margoak, liburuak, errotulkiak, orriak...*
- 3. Hamaiketakoan, bilgarri gabeko janaria ekarriko dugu eta berrerabiltzeko ontzi edo poltsak erabiliko ditugu.*
- 4. Ikastolako esparru desberdinetan (jantokian, pasabideetan, gelan...) zaratarik ez sortzen ahaleginduko gara.*
- 5. Berogailua piztuta dagoenean, leihoak eta ateak itxita izango ditugu. Bero lar dagoenean, berogailua itzaltzeko eskatuko dugu.*
- 6. Ura zentzuz erabiliko dugu.*
- 7. Hondakinak murrizten, berrerabiltzen eta birziklatzen saiatuko gara.*
- 8. Hondakinak egoki bereizteko konpromezua hartzen dugu.*
- 9. Laudioko ondarea zein den ezagutzeko eta zaintzeko ahalegina egingo dugu.*
- 10. Gure herria/ Ikastola jasangarriagoa izan dadin proposamenak egingo ditugu.*